

KALITATE, INGURUMEN, SEGURTASUN ETA OSASUN POLITIKA



TERMINAL DE AUTOBUSES DE GARELLANO, SL Garellanoko (Bilbao) autobus terminalaren udal-emakida kudeatzen duen enpresa da. Enpresak, Zuzendaritzaren bidez, bere Kudeaketarako Sistema Integratuari eusteko jarduera guztiak lideratu eta sustatzeko hitza ematen du, hain zuzen ere, UNE-EN-ISO 9001:2000, UNE EN ISO 14001:2004 Nazioarteko Arauetan eta OHSAS 18001:1999 zehaztapenetan ezarritako eskakizunei jarraituz.

Kudeaketarako Sistema Integratuaren agirien bidez, eta sistema bera ezarri, aztertu eta etengabe hobetzearen bidez, bezeroaren gogobetetzeari ematen dio lehentasuna. Horretaz gain, aplikatu beharreko legeak, araudiak eta erakundeak sinatu ditzakeen beste eskakizunak betetzeten ditu kalitate, ingurumen, segurtasun eta osasunari dagokionez.

Hauek dira gure jokabidearen oinarriak:

- Etengabe hobetu beharra.
- Salneurri zuzena eta lehiakorra.
- Zerbitzu ona ematea.
- Enpresako langileen eta enpresarekin elkarlanean dihardutenean segurtasuna eta osasuna sustatzea.
- Enpresaren errentagarritasuna.
- Barrutiko gardentasuna.
- Ingurumena babestu beharra .
- Bezeroaren gogoia asetzeta.

TERMINAL DE AUTOBUSES DE GARELLANO, SLk bezeroak adierazitako edo adierazi gabeko beharrak betetzeko hitza ematen du, bere baliabideak erabiliz eta erakundearen helburu-sozialari eutsiz betiere. Horretaz gain, bere langileen segurtasuna eta osasuna zainduko ditu eta langileen jardueran egon daitekeen kutsadurari aurre egingo dio. Laneko arriskuak saihestuko ditu eta langileen osasunean arriskuok izan dezaketen eragina gutxituko du. Horrela jokatu du, halaber, baliabideen kontsumo handiegia denean edo hondakinen ondorioz ingurumenerako kaltegarriak izan daitezkeen eraginak sortzen direnean.

TERMINAL DE AUTOBUSES DE GARELLANO, SLk, enpresaren politika eta helburuak lortzeko, bere gain hartzen du, alde batetik, langileei galdetzeko eta parte hartzeko aukera emateko erantzukizuna, eta bestetik, langileak informatu eta trebatzekoa. Horretarako, behar diren baliabide guztiak jarriko ditu.

TERMINAL DE AUTOBUSES DE GARELLANO, SLko zuzendariak bermatu egiten du ezen, Heziketa-, Jakinarazpen- eta Motibazio-Planaren bidez, politika honen berri langile guztiei ematen zaiela eta guztiek ulertu eta onartzen dutela. Plana erakundearentzat edo erakundearen izenean lan egiten duten guztien esku dago, herritar guztien esku dagoen moduan. Era berean, Zuzendaritzak, honako hauek egiaztatzen ditu barruko ikuskaritzaren bidez: ezarritako sistema eraginkorra dela; azterketaren eta akatsak gainditzearen ondorioz hobetu egiten dela eta Erakundearen egindako aldaketekin bat datorrela.

BILBAO, 2006ko martxoan
Zuzendaritza